



EUSKAL HERRIKO HISTORIA ILUSTRATUA 4

Joseba Asiron
Martintxo Alzueta

DICIEMBRE
2022

Euskal Herriko Historia Ilustratuaren laugarren liburukiak gure iragan hurbileko pasakizunei eta pertsonaia garrantzitsuei jartzen dizkie irudiak. Haren bidez, jakin dezakegu euskal hiriek XIX. mendean nolako itxura hartu zuten, ordura arte harresien barrenean estu-estu iraun baitzuten; jakin dezakegu airetik Gernikako bonbardaketa nola ikusi zuten; eta Rosa Oteizaren aurpegia egiaz nola-koa zen, Foruen monumentua egiteko modelotako jarri baitzuten gaztea. Hala, osatuta gelditu da sail hau, Histori-aurretik gaur eguneraino Euskal Herriaren historia berre-raiki duena orain arte inork egin ez duen maneran.

HISTORIA - ILUSTRAZIOA

ISBN: **978-84-19319-22-7**
ORRIALDEAK: **120 (ggb)**
FORMATOA: **17 x 24**
PREZIOA: **20,00 € (ggb)**

HISTORIA **ILUSTRATUAK**

- Laugarren liburuki hau Historiaurretik gaur eguneraino Euskal Herriaren historia berreraiki duen bilduma arrakastatsua osatzera dator.
- Xehetasun handiko ilustrazio errealistek lagun egiten diete testuei, zeinak, irakurterazak izanagatik ere, dokumentazio zorrotzean oinarritzen baitira.
- Ezohiko ikerketa lanaren emaitza da, irudietan biltzen baitira estreinakoz Euskal Herriko gertaera historiko garrantzitsuenak eta gure historiaren protagonistak. Urrats sendo bat iraganeko giza paisaiak gure etorkizunerako berreskuratzeko zeregin ohoragarrian.



JOSEBA ASIRON

1962, Iruñea
Artearen historian lizentziatu zen Zaragozako Unibertsitatean. Doktoregoa egin zuen Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Erdi Aroko dorretxeen gaineko tesia eginda. Obra bat baino gehiago argitaratu ditu, bakarrik nahiz elkarlanean; besteak beste, *1512 Nafarroa, amets urratua* (Elkar, 2012) eta *50 fechas clave de la conquista de Navarra* (Txalaparta, 2013). Periodikoe-tan kolaboratu izan du artikuluekin eta zutabeekin; nabarmentzeko da *Diario de Noticias*-eko "Adiós, Pamplona" saila, izen bereko bi liburukitan bildu duena. Iruñeko alkate izan da 2015etik 2019ra.

MARTIN ALZUETA MARTINTXO

1972, Iruñea
Komunikabidetan kolaboratu izan du bere olio-pintura ezagunekin; besteak beste, *Nabarra* eta *La voz de la merindad* aldizkarietan eta *Berria* eta *Egunkaria* kazetetan. Horietan guztietan kritika sozial eta politikoa eta umore grafikoa landu ditu, batetik bestera saltoka. 2008an, Joseba Asiron ezagutu zuen, eta, elkarrekin, Amaiurko gaztelua berreraiki zuten marrazki bidez, bai eta *Amayur. Los últimos navarros* liburuan argitaratu ere (Txalaparta, 2008). Handik lau urtera, bi laguneren eskutik, *Nafarroa, amets urratua* komikia iritsi zitzaigun (Elkar, 2012), eta 2013an, berriz, *50 fechas clave de la conquista de Navarra* (Txalaparta). 2014an, elkarrekin murgildu ziren *Euskal Herriko Historia Ilustratua* sailean (Txalaparta), zeina laugarren liburuki honekin bukatzen baita.

BILDUMA HONETAN



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus www.txalaparta.eus